

Azaroak 2



**KATIXA
DOLHARE-ZALDUNBIDE**
LITERATUR ZALEA



ANTTON OLARIAGA

2020ko azaroaren 2an, gure haurrak itzultzekoak ziren eskolara, oporralditik landa. Goiz hartan, egitarau berezia apailatua zien Frantziako Hezkuntza Nazionalak: errientsek eta errientek irakatsi diete, hiru orduko tartean, batetik haurrek beren osasuna babesteko – eta beren aitamen eta aitatxi-amatxiena ere bai – aurpegia maskarekin tapatu beharko dutela, eta bestetik adierazpen askatasunaz goza dezaketela Frantzia herrian. Hain zuzen ere, Frantziako Gobernuak eskolan maskarak inposatu dizkie 6 urtez goitiko haur guztiei, COVID-19 kutsatze abiadurara arrastatzeko estakuruarekin, azaroaren 2tik goiti. Eta azaroaren 2ko data hautatu du ere Conflans-Sainte Honorine, Paris inguruko hirian basaki erail duten Samuel Paty irakaslea omenarazteko: irakasleek “atentatu terrorista” gisa aurkeztu izan behar diete gertakaria hurrei, esplikatzu historiako irakasle hori hil dela klasean adierazpen askatasunaz hitz egin zuelako.

Aipa dezagun lehenik lehen manua. Nork sinets dezake 6 urtetan osasuntsu dela musukoa bisaia gainean ezartzea, zortzi orduz egunean, eta nork pentsatzen ahal du hain gaizki tratatu haurrek

gogoia izanen dutela ikasteko eta handitzeko? Haurrak nahaskeria giroan haziz, tratatu txarrak jasanaraziz, nola sustatu haien baitan zohitzeko nahia?

Ea orain bigarren manua. Samuel Paty irakaslearen hiltzailea txetxeniarraren –ez arabiarra, anitzek erran bezala–, ez zuen lotura hertsirik talde terrorista batekin, konplize guti zituen. Bere jեսtua izugarria izan arren, ez da erlijioak bultzatua izan, baina miseriak. Hamarkadak badira Frantziako hiri handietan miseria soziala, ekonomikoa, psikologikoa eta kulturala erroto dela. Ongi ezagun da gune horietan gertatu itsuskeriak errekuperatzen dituztela agintariek herrian beldurra eta frantses nazionalismoa sustatzeko. Kasu honetan ere, ikastetxe guztietan inposatuz martiri errepublikanoaren omenaldi publikoa, gorroto eta arrazakeriaren garrak ditu elikatu gobernuak, erresumaren zoko guztietan.

Ez da psikologo handia izan behar ohartzeko zein kaltegarria den 6 urteko haurrek bi irakaspen horiek une berean jasotzea. Nolako saltsa egin ote da beren buruan? Ahoa estaltzen badut, libre izanen naiz. Mintzo banaiz, lanjerosa izanen naiz besteendako. Gizarteak

osasuntsu segitzeko, haur gisa isildu behar dut. Edo bestela: helduen munduan onartua izateko, ene burua gaizki tratatzen ikasi behar dut. Katixima errepublikanoaren arabera, haurren adierazpen askatasuna da isilik egotea, eta helduena da laizismoaren propaganda egitea.

Ikasle maskaratuak irudikatuz klasean, irakaslearen prediku errepublikazalea jasan beharrez, Marjane Satrapiren *Persépolis* liburu autobiografikoaren irudi bat zait gogora heldu: Errepublika islamista instalatu berria da, eta eskolako neskatxa guziak ikusten dira burua oihalarekin estalirik, bihotza eskuz jotzen martirien omenez. “Ados nintzen amarekin. Nik ere bizitzari baizik ez nuen pentsatu nahi. Baina ez zen beti erraz: eskolan, egunean bietan lerrokatzen gintuzten gerla biktimen galtzea negartzeko”, dio narratzaileak.

Klima aldaketak, eritasunak eta krisia sozioekonomiak eragin kezka larrien unean, herrialde aberatsetako gizarteok sakrifikatzen dugu gure haurren bizi poza eta inozentzia, gure gazteen hezkuntza, xaharren osasun fisiko zein moral salbatu gabe, eta askatasun murrizketa harrigarriak onartuz. Noiz arte? ●